

Julen Gabiria Bediako idazleak Mikel Zarate saria irabazi dau

12. orrialdea

Bertso bazkaria eta Nekazal Punk

Luis Prietoren lagunak, Dimako Gaztetxea eta Dimako Bertso Eskolea batu dira Diman hilaren 4an jai bat ospatuteko. Bertso bazkaria izango da akaso jente gehien batuko dauan ekitaldia, Jon Maia eta Unai Iturriaga egongo dira bertan eta, baina goizeko azokan eta desafioan eta gaubeko kontzertuetan be ez da jentea faltako. 12. orrialdea



Arratia Futbol Taldeko gizonetzkoak maila galdu dabe

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

144

2011ko bagilaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Gontzal Mendibilen diskoa kalean laster

Bagilaren 7an kalean egongo da Gorbeialdeko kantu tradizionalak batzean dituan diskoa.

Zeanuriztarrek, *Neure txiki polita* titulupean, Gorbeialde inguruko kantuak batu ditu bere ikutu personala emonez. Eta kantuak tradizionalak izan arren, modernoak be badira egindako moldaketak esker. Folkari igesi, pop, rock sinfoniko edo swing ikutuakaz, geure memoria kolektiboan gordetzen doguzan kantuak barriztauta dagoz lan honetan.

Gorbeiaiaz lotuta baina tradizionalak ez diran kantu bi be batzean dira diskoan. Kantuok Mendibilek berak sortutakoak dira. Horree-

tako bat, "Malkoak euri balira", Sabina Intxaurrea lehengusua zanari egindakoa da.


Internetaren sasoian, diskoak saltzeako baino gehiago zuzenekoak promozionetako dirala eretxita, Gontzal Mendibil kontzertuak hiritzartzen dabil daborduko. Arratian diskoaren aurkezpena Zeanuriko jaietan izango da, abuztuaren 14an, eta Arratiako herri guztietan kantaldia emotea gurako leueala dino kantariak. Arratiatik kanpo, Otxandion, Bilbon eta Gasteizen be entzungo dabez Gorbeialdeko kantuok. 8. eta 9. orrialdeak



Gontzal Mendibil disko barriaz.

ARRATIA

Ibilaldiak



Bagilaren 4rako ibilaldi bi eta mendi bizikleta marxa bat antolatu dabez gurean. Diman, hamasei ermitatik pasata 31 km.ko ibilbidea egitea dago, ondare artistiko-kulturala ezagutuz. Geure basogintzearen egorea eta hausnarketea egiteko, barriz, Igorretik urten eta Arratiako haretx eremuetatik pasetan dan ibilbidea antolatu dabe Arratia Bizirik eta Ilintiak. Eta bizikletan eta lagunartean mendira joan gura izan ezkerro, zitea Artean da. 6., 11. eta 12. orrialdeak

IGORRE

Udako jaien txupina sanantonioakaz

San Antonio jaiakaz hasten dira gurean inguruko herrietako jaiak. Sanantonioak herriko jai nagusiak dira Igorren eta Zeberion Ermitabarri auzokoak. Hilaren 10ean Arratiko Zekorrek Rugby Taldekoak botako daben txupinagaz emongo jakie hasierara 19ra arte iraungo daben jaiak. 7. orrialdea

ARRATIA

Bildu alderdi bozkatuena

Arratiarren partaidetzea udal eta foru hauteskundeetan Bizkaiko batzestekoa baino handiagoa izan zan. Bildu, indarrez sartu da eta lau herritan botorik gehien jaso dauan alderdia izan da. Dana dala, EAJ-PNV izan da botorik gehien jaso dauan alderdia bost herritan. Ubiden Alkarlanien izan da irabazlea. 5. orrialdea

15 ezkuoinetakoak
goi mailako marketako oinetakoak
NEREA IRUARRIZAGA URRESTI

Orain ezkur Zornotzan be Gudari kalea 13

EL NATURA LISTA
CAFENOIR
Timberland
Levi's
HUSH PUPPIES
neosens
STONEFLY
HERRI NEXT
HISPANITAS
art.

Lehendakari Agirre 14 · Igorre · 94 673 62 24

KANTU HERRIKOIAK

DIMAKO IDIARI

1. Laguntasun bat eskatzen dautset Aita San Antoniori, bere izenean jarri ahal baleiz bertso pare bat edo bi, berak eginda ikusten doguz makinatxo bat mirari horretarako bat gura neunke papel honetan ezarri.
2. Bizkaiko bazter-bazter bateko Dima deritxon herrian, idi eder bat zelan dagoan nago esan beharrian; hasi buruan eta atzera hiru metro dau luzian, hamairu arak gogor gogorak biribilean garrian.
3. Apatxetatik goiko palara ditzu bederatzi arak, aureko beso bien erdian barriz metro bat zabalak; lurrean ere erdi tarraska darabil bere bularra,

burua eta adar txikia kolorez pinto nabarra.

4. Honen luzia ta honen zabala ta honen gorputzen ederra, itsasontzi bat dirudiela atzetik eta aurrera; Aste Santuen idi eder hau eroan daurie Bilbora, bertan ilteko uste osoaz baina bizirik lotu da.

5. Tamalez dagoz berau hiltzeko hain den ganadu ederra, San Isidroak pasatuteko daroadie Madrileria; ganadu eder ederragorik han agertuko ete da? guztiz famadu ein dan idia orain doaz han saltzera.

6. Nor dan be esan beharra dauku berau loditu dauana, apellidua Arriortua Pedro dau bere izena; Etxe bi daukaz errentadunak

bera hirurgarrena, horrez gainera esku artean bastante ondo daoana.

7. Beti izan da famili hori ganadu eder zalea, antxinetatik eta gehiago haren etxean hagea, Ointxe urte bi hazi eutsien auzoko batek hobeia, orduko faltak bardinduteko oingoak juekek sobrea.

8. Agur goxo bat opa dautsegun Pedro Arriortuari, ta honez ganera emazteagaz seme ta familiari; guzti-guztiok opa dautsegun hementxe danok agiri, holangoxeak loditu daizen datorren urterako bi.

Iturria: Bittor Iza Gorospe (Dima 1909-Lemoa 1989). 1987an, Lemoan, Udako Euskal Unibertsitateko musika taldeak jasoa.

Dimako idiari



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
Maiatzaren 30etik bagilaren Sera
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

Bagilaren 6tik 12ra
Vargas. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 696 782 189

Bagilaren 13tik 19ra
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Medikuak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13
Dima: 94 631 56 30
Igorre: 94 600 74 63
Lemoa: 94 631 31 16
Ubidite: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubidite: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea
94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea
94 673 62 51

Gorbeialde Irratia
94 631 52 90

Trenak
Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265
Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.
Ordurua: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.
Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.
Ordurua: 05:45etik 21:45era.
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubidite-Otxandio-Lemoa-Bilbo
Ubiditetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:
Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubidite
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.
Ubiditea: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.
Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea
Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.
Zapatuetan ez dago 05:45eko.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.
Jaiegunetan (Arrigorriaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio
Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.
Jaiegunetan (Arrigorriaraino): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.
Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
www.begitu.org
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Kudeatzailea: Inigo Iruarizaga.
Erredakzino taldea: Maite Arrizabalaga, Urtzi Barrenetxea, Maialen Egileor eta Irati Urien.
Maketazinoak: Inigo Iruarizaga.
Publizitatea: Inigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milkua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunda Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubidite).
Tiradea: 6.400 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.400 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

ZEURE BERBEA

Eskolako jangelen egoeraren ganeko hausnarketea

Guraso Elkarteak aspaldi gabilz jangelen egoera aldatu guran. 2010ean "Kudeaketa zuzeneko jantokiai buruzko proposamena" egin genduan eta bidali Administrazio zein sindikatu eta beste erakundeai. Bagenkian gure proposamen guztiak ez zira onartuko bat-batean baina prest gengoan, eta gagoz, urtero gauza batzuk planteatu eta eztabaidatzen hobekuntzak lortzeako.

Eskola-jangelen funtzionamentua ezinbestekoa danez antolaketa osoa aztertu behar da, ikasleen partehartze eta haren autonomiatik ikastetxeen funtzionamentuan, antolaketan, zuzendaritzetan, langileen baliabideetan, ordutegietan... gertatzen dan eraginerraino. Gune honek indar handia daukien ikaslearen sozializazioan eta haretan emoten diran ikasketa batzuk ikastetxeak edo familiak bultzatzen dituen baloreak sustatzeko lagungarri edo kaltegarriak izan daitezke.

Gutun honen bitartez jangelak daukien garrantzia azpimarratu gura dogu eta izan dogun egoeraren azterketa txiki bat egin. Gure asmoa prozesu guzti honetan jangelen esparrua hobetzea izan da eta holan jarraituten dogu.

2008-2009 ikasturtean hasi ziran negoziaketak hitzarmena barritzeko. Hiru ikasturte honeetan egin diran negoziaketetan hurbiltze eta akordio ezak egon dira eta 30 greba egun

inguru izan dira, horrek suposatzen dauan familientzako egonezinagaz.

2010-2011 ikasturterako Federazioak Hezkuntzagaz akordioa sinatu genduan, langileen lanaldia 18 ordutan gehitzeko eguneko menuaren prezioa 30 zentimo igoaz. Patronalaren eskeintzan enpresak finantziautako prestakuntzarako 6 ordu be jasoten ziran langileen ohiko lanaldian jasoak. 2010eko zementuan hobekuntza honek aurkeztuz negoziaketea erretzuko zala pentsatu genduan, baina ez zan holan izan.

Negoziaketa prozesua geldirik egoela "Lan-gatazkak konpontzeko borondatezko prozedurari buruzko lanbide arteko akordioa -PRECO" eskatu genduan BAIKARA, BIGE eta DENON ESKOLA federazioak eta EHIGE konfederazioak, maiatzean. Momentuz mediazioa onartu da eta horretan dagoz enpresa eta sindikatuak.

EHIGE beharrez jarraituten dau eskola-jangelak hobetuteko. Hori dala eta, "Kudeaketa zuzeneko jantokiai buruzko proposamena" helarazo eutsan Hezkuntza Sailari pasa dan urtean.

Modu berean, hainbat proposamen egin deusaz aurrean atera dan "Baldintza teknikoaren agiriari". Hainbat batzar egin doguz Hezkuntza sailagaz arlo honeetan hobekuntza lortzeako: 1. Kalidadea ziurtatzea. 2. Kalidade kontrolen ezarpena. 3. Txanda kopurua. 4. Itzultze-politika. 5. Ikastetxeko koordinazioa. 6. Jangela batzordeak. 7. Web bidezko komunikazioa kanala. 8. Beharginen prestakuntzea. 9. Elikadura-politika. 10. Menu bereziak.

REYES LENGARAN
BIGE KOORDINATZAILEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Lastatxia



Lastoa eta bedar sikua gordetako lekuari Arratian lastati, lastategi edo lastotei esaten joko. Baina Arantzazun lastatxia berbea jaso genduan eta bertako bateri erretratua atera be egin geuntsan. Lastatxiak gero eta gitxiago ikusten dira gure inguruan. Euren balio etnografikoa ahaztu barik, urte batzuk daukiezan lagunen artean nork ez dau gogoan lastatxi baten egineko loaldiak, olgetak edo lastanak?

ERETXIA

Gastua eta inbersinoa

Hauteskunde usaina oraindino ez jaku airetik joan. Badirau, denporan luze jotzen daualako: aurre-kanpaina, kanpaina bera, hausnarketa eguna, bozketak, kontaketak, botazino ostekoak, aliantzak, itunak, kromo aldaketak... asteak politikaz entzuteko, erakunde barriak osotu aurretik.

Eta denpora eternal honetan politikoen berbak entzuten doguz etenbarik, egingo dituen gauza zoragarriak agintzen, guretzat daukiezan proposamen ezin hobeak plazaratzen, agoa promesaz beteta. Dana polita eta barria, guztia esperantzaz betea. Ha ta guzti be, inork gitxi dino zer egin dauan txarto, zein agindu bete ez dituan, ezer be ez jan dauan berbaz. Hori guztiori ahaztuta geratzen da aurreko kanpainaren kutxaren barruan, aurtengo kanpainakoa be, lau urte barru, kutxa horretan ahaztuta geldituko dan itxaropenaz.

Dana dala, hori ez da izan kanpaina honetan harritu nauana; izan be, politikariak ohituta gaukiez holakoetara. Oraingoan atenzioa emon deusta zelan erabili dituen berba bi, oso modu esanguratsua dalako persona baten benetako pentsamentua eza-gutzeko. Berba honek "gastua" eta "inbersinoa" izan dira.

Berba biak Harluxet hiztegi entziklopedikoan konsultatu dodaz, eta gastua eta inbertiduteko ekintzak dirala ipinten dau. Beraz, hiztegi berean *gastatu* eta *inbertitu* aditzak bilatu dodaz eta hauxe dino: **Gastatu**: 1. du ad. Dirua zerbaitetan erabiliz ahitu (amaitu). **Inbertitu**: du ad. EKON. Errentagarritasuna lortzeko asmoz, ekipamendu-nahiz kapital-ondasunetan edo finantza-aktibotan aurrezkiak erabili.

Argi dago, ezta? Gastuak diru barik ixten gaitu eta inbersinoak,



LEIRE NARBAIZA
Irakaslea

gastua bada be, errentagarritasuna dakarku. Horregaitik emon deusta atenzioa gu gobernetan jarri gura dabena zelan erabilten dituen berbok. Osasungintza, kultura, euskera, hezkuntza aitazten dabenean gastu berbea darabile; azpiegiturak agotan hartzen dituean, ostera, inbersino berbea da entzunena. Baina hau holan da? Bat zatoze honeguz? Ni ez.

Kultura, hezkuntza, osasuna, euskera... gastuak dira, ez dago dudarik. Baina dirua arlo honeetan irazi ezik, ezin da ongizaterik sortu. Jentarte osasuntsua eta kultura aberatsa da, dirutan ez ezik, izpirituan be. Baina gure diru publikoak azpiegituretan xahutzen badoguz, zer geratuko jaku? Porlana eta galipota, besterik ez.

Esango deustazue porlanak eta galipotak beharra emoten dabela, enplegua sortzean dabela, eta horrek aberastasuna dakarkola gizarteari, baita erosotasuna be. Arrazoia, baina osasunean, euskeran, kulturaren eta hezkuntzan inbertiduteak be ez ditu lanpostuak sortzean? Ez dago horren atzean konsumoa, enpresak, turismoa, oporrak, botikak, masajeak, ospitaleak, anbulatorioak eta komunikabideak. Ez ete dira hamaikatxutxuek personaren ogibide? Ez ete dabe beste personaren bizimodua hobetuten eta indartzen. Ez ete da inbersino merkeagoa?

Azpiegiturak bizkorrago joanarazoten gaitue, eta egia da, askotan erosotasuna be emoten deuskuela. Hala eta guztiz be, ez dira lar garestiak? Ez dabe gehiegi kutsatzen? Ganera, esango neuke sortzean dituen etekin ekonomikoak gitxi batzuen mesedetarako baino ez dirala. Zelan berreskuratzen dabe, bada, erakundeak ipinitako dirua? Kamino batek zelan emoten ditu etekin ekonomikoak bidesari barik? Zerga bidez esateak ez dau balio, enpresa kulturalak be zergak ordaintzen dituelako. Norbaitek azalduko baleust...

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tomea auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrez beharrez,
euskeraz eginez

Enbata
Batzon gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



ENEKO IZA

Azkeneko minutua

Zenbat gauza ixten doguzan azkeneko minuturako.

Umetan hartzean dogun mania bat da. Garbantzua gustau ez eta amak zapatilla eskuetan hartu arte arriesgetan ginan. Eskolako beharrak egiteko orduan be, zertarako egingo genduzan lehenago, oraindino denporea sobran eukita. Antzean azterketakaz.

Mania batzuk edadeagaz zuzenduz joaten dira baina beste batzuk geugaz segiduten dabe urteen joakeran eta azkeneko minutua jenteak dominata daukan teknika bat da.

Inoz parau zarie pentsetan azkeneko minutuak zenbat emoten dauan? Beste edozein minutu normal bat baino askoz luzeagoa da. Horreetan 60 segundoetan kapaz gara ezelango problema barik etxetik autobusera dauan kilometroa egiteko. Gero Maratoi Txikian bost

minutu beharko doguz kilometro bakotzeko baina hori beste kontu bat da.

Esan lei horreek 60 segundoak astiroago pasetan dirala eta horren adibide argi bat oraintxe ipiniko deusuet. Umetan, aste barruan, telebista ikusten egon eta ama atetik sartzean somatu ezkeroko segundo bakarrean kapaz ginan telebista amatau, sofa astindu, gelako argia isiotu eta silleagaz zaratarik atera barik liburuen aurrean ikasten partakoto. Hori bai, dana ez zan magia eta arnas estuari zelan edo halan eutsi egin behar izaten jakon.

Azkeneko minutuan egiten diran gauzen zakuen danerik topau leiteke: Arrasti osoa erosketak egiten ibili ostean agertuten dan jertse marabillosa, lau urtean egiteko astirik egon ez dan hauteskunde kanpainako ekitaldi politikoa, italiarren gola, parrandea amaitu eta etxera bidean agertuten dan maitasuna... Mc Gyverren kable gorria eta azula be horren baten izango dira.

Zer ete dauka azkeneko minutu horrek personea horrenbeste erakarteko. Badakigu ez dala bape konpainia ona baina sarritan inogaz baino gusturago beragaz egoten gara.

Eta txarka-txarka azkeneko minutua ez da hain txarra! Horren aldean txarra da atzeneko minutuan egiten dana, hori bai dala lar.

Eskerrak oraingoan beste batzuetan baino bizkorrago nabilan. 23:55 baino ez dira eta biharko egin beharrekoa akabau dot. Amak baleki! Ze harro egongo litzateke. Garbantzua be parkatu egingo leuskidaz.

ZERTZEAN



ARITZ ZUBIATE

Enkargua

Poema bat eskatu zidaten. Zer egin? Zalantzak azaleratu ziren orduan.

Idaz nezake inguruak zementoz betetzen dituztenei buruz
edo herria koloreztatzen dutenen inguruan,
idaz nezake barruan daudenei buruz (terrorista!)
edo egon beharko luketenen inguruan (demagogoa!)

Idaz nezake komunismoaz edo kapitalismoaz,
idaz nezake Bilduk sortutako ilusioaz (propaganda!)
edo beste batzuen porrotaz (gustu txarra!)

Idaz nezake liburuez (desfasatua!) edo sare sozialez

(teknopata!),
idaz nezake esan behar denaz edo ezin esan daitekeenaz,
idaz nezake berdintasunaz (sozialista!) edo askatasunaz (liberala!),
independentziatz edo menpekotasunaz,
prozesuaz edo blokeoaz,
hormez edo zubiez,
posibleaz edo ezinezkoaz,
armiarna sareez edo Egipetoko piramideez.

Poema bat eskatu zidaten,
baina zabalegiak ziren aukerak...
eta nik, hau bidali nien.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erudian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkeroko, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Erdi apurtutako kartelak lurrerantza jausten, bestelako ekitaldien barri emoten daben kartelak ganetik ipinita... amaitutako bataila baten irudia emoten dau. Azkeneko egunotan gure herrietako bizimoduaren erritmoa aldatu daben gertaerak pasau dira, eta bakotxa bere kontuetara bueltau da. Hori bai, ondino batzuek segiduko dabe ezkerria eta eskoia; abertzale eta espainol; pakto eta gehiengo.

Argazkia Arantzazun ateratakoa da, eta bertako armarrarian ikusten danez, urak errekan behera doaz denpora guztian, baina zubiak bere lekuan segiduten dau, mobidu barik.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

 **agoa** Ortodontzia
hagin klinika Implantaeak
Estetika

Marina Urigoitia Aidedoa Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bilakala
T. 94 632 50 39

Marina Urigoitia MD
R.P.S. 25/06

EXCAVACIONES
MARGOIZA

Isaki
Martin Gorostiza

Ubideratzeak
Lurrerauzketak
Baso pistak
Ur Putzuak
Era guztietako hondeaketak

Bº URIBE - 48144 ZEANURI
Tel. 607 272 424
610 271 128
Tel/Fax: 94 433 22 28
e-mail: margoiza@euskolnet.net

ARRATIA

Udal hauteskundeetan EAJ-PNVk bost herritan irabazi dau, Bilduk lautan

Maiatzaren 22ko udal hauteskundeetako partaidetzea oso handia izan da gurean, % 73 (Lemoa) eta % 90 (Arantzazu) bitartekoa.



Erredakzioa

Bost herritan, EAJ-PNVk jaso ditu boto gehien: Arantzazun, Areatzan, Artean, Bedian eta Zeanurin, hain zuzen be. Diman, Igorren, Lemoan eta Zeberion, barriz, botorik gehien jaso dituan alderdia Bildu izan da eta Ubiden Alkarlanien. Batzar Nagusietarako 9 eserleku aukeratu ziran Durango-Arratia barrutian. Horreetatik 4 EAJ-PNVk eskuratu ditu, 3 Bilduk, 1 PSE-EEK (PSOE) eta beste bat PPK.

Udal barriak

Udalak osotuteko data ofiziala bagilaren 11 da eta orduan jakingo dogu nor izango dan herri baktokxean alkate. EAJ-PNVk 41

zinegotzi lortu ditu; Bilduk 34; Artea Aldatuz Herri Plataformeak 2; Igorre Danontzat-ek 1 eta PSE-EEK (PSOE) beste bat.

Hona hemen herri baktokxean hautatutako zinegotziak:

Arantzazu

Arantzazun 290 herritarrek emon ahal eben botoa eta horreetatik 263k emon eben; hau da % 90,69k. Abstenzinoa, % 9,31koa izan zan.

EAJ-PNVk 4 zinegotzi lortu ditu: Begoña Llano, Jon Monasterio, Susana San Anton eta Olatz Petralanda. Bilduk 3: Haritza Iturbe, Roberto Adolfo Fernandez eta Ion Etxebarria.

Areatza

Areatzan 891 herritarrek euki eben boto eskubidea. Partaidetzea %81,03koa izan zan eta abstenzinoa % 18,97koa.

EAJ-PNVk 5 zinegotzi lortu ditu: Josu Basozabal, Sara Gutierrez, Arkaitz Amuriza, Ainhua Artetxe eta Benjamin Javier Irusta. Bilduk 4: Yazmina Beobide, Beñat Madariaga, Miren Madariaga eta Juan Francisco Etxebarria.

Artea

Artean 601 herritarrek euki eben boto eskubidea eta horreetatik 527k emon eben botoa (% 87,69), abstenzinoa % 12,31koa izanik.

EAJ-PNVk 3 zinegotzi lortu ditu: Alberto Etxebarria, Ainare Sanchez eta Josu Aginaga.

Bilduk 2: Edurne Gumuzio eta Aitor Etxebarria eta Aldatuz Herri Plataformak (AHP) beste bi: Gaizka Agirre eta Leire Uriarte.

Bedia

Erroldan egoazan 799 herritarretatik 609k (% 76,22) emon eben botoa. Abstenzinoa % 23,78 izan zan.

EAJ-PNVk 5 zinegotzi lortu ditu: Aitor Sorriketa, Miren Gotzone Zabala, Miren Igone Etxebarria, Juan Jose Goti eta Imanol Ispizua. Bilduk bi: Amaia Chantal "Ninbe" Arrarte eta Ibai Lekue.

Dima

Diman 1.090 herritar egon ziran boto eskubideagaz. Horreetatik 949k (% 87,06) emon eben botoa maiatzaren 22an, eta abstenzinoa % 12,94 izan zan.

Bildu izan zan boto gehien lortu ebazan partidua, 5 zinegotzi lortuz: Rafael Ugalde, Amaia Alzola, Oier Belasko, Maria Isabel Beaskoetxea eta Iker Bilbao.

EAJ-PNVk 4 zinegotzi lortu ditu: Josune Gorospe, Antolin Esparta, lurdana Acasuso eta Francisco Javier Arteaga.

Igorre

Igorren botoa emon eben 2.510 herritarrek, (% 75,17) erroldan 3.339 egoazanen artetik. Abstenzinoa, beraz, % 24,83 izan zan.

Bildu izan zan botorik gehien jaso eban partidua baina Bilduk eta EAJ-PNVk zinegotzi kopuru bera lortu eben, bosna.

Bilduko zinegotziak, Beñat Anzola, Miren Karmele Aurrekoetxea, Iñaki Iturrioz, Miren Gurutzne Azumendi eta Soraya Lizundia dira.

EAJ-PNVko hautatuak, barriz, Iñigo Uriarte, Aitor Etxebarria, Olatz Urkiza, Jon Zabala eta Aina-ara Uribe. Igorre Danontzatek bat lortu eban: Iñigo Undurraga.

Lemoa

Lemoan gauza bera gertatu zan: Bilduk eta EAJ-PNVk bosna zinegotzi lortu zituen eta hirugarren alderdi batek, PSE-EEK (PSOE), kasu honetan, bat.

Botoa emoteko erroldan 2.610 lagun egoazan; hautesleak 1.928 (% 73,87) izan ziran. Abstenzinoa % 26,13.

Bilduko hautatuak: Saioa Elejabarrieta, Jesus Mari Fernandez, Aitor Erauzkin, Nikomedes Urkiza eta Idoia Pujana. EAJ-PNVkoak: Javier Beobide, Gotzon Olabari, Miguel Angel Etxebarria, Estibaliz Latorre eta Iratxe Zuazo.

PSE-EE (PSOE): Unai Ortuzar.

Ubide

Ubiden botoa emoteko erroldan 148 herritar dagoz. Botoa 124k (% 83,78) emon eben, absten-

zinoa % 16,2 izanik.

Alkarlanienek lau zinegotzi lortu ebazan: Joxan Pagola, Gizane Ibartutxi, Iker Saenz de Aragondoña eta Aritz Azkorbeitia.

EAJ-PNVk zinegotzi bat lortu dau. Ubiden, 250 herritar baino gutxiago dauanez, hautagaiak aukeratzen dira zerrenda bate-tik, ordena kontuan euki barik. Eta PNV-EAJk zinegotzi bat lortu dau baina boto kopuru bera izan dabe hautagai bik: Arantza Jausorok eta Amaia Artetxek. Bi horreetako bat egongo da udaletxean.

Zeanuri

Zeanurin boto eskubidea izan eben herritarrek 1.031 izan ziran. Partaidetzea %84koa izan zan, 866 hauteslek emon eben botoa eta. Abstenzinoa % 16 izan zan.

EAJ-PNVk 5 zinegotzi lortu zituan: Izaskun Sagarna, Felipe Agirrezabala, Ruth Martinez, Egoitz Arana eta Bitoriano Larrazabal. Eta Bilduk 4: Anuska Emaldi, Jose Luis Artetxe, Pedro Mari Lejarza eta Miren Zedarrri Jauregi.

Zeberio

Erroldako 882 lagunetatik 697k (% 79,02) emon eben botoa. Abstenzinoa % 20,98 izan zan.

Bilduk 5 zinegotzi lortu ditu: Ana Belen Alberdi, Aitor Urieta, Nahikari Añibarro, Agurtzane Urraza eta Juan Ignazio Diaz. EAJ-PNVk, barriz, 4: Montserrat Petralanda, Unai Larrabide, Luis Fernando Garai eta Roberto Gonzalez de Etxebarria.

Batzar Nagusietarako emoi-tzak

Bizkaiko Batzar Nagusietan, EAJ-PNVk 22 eserleku lortu zituan; Bilduk 12; PSE-EEK (PSOE) 9 eta PPK 8 eserleku maiatzaren 22ko hauteskundeetan.

Gure eremua Durango-Arratia barrutian sartzean da. Bizkaian botoa emon eben erroldako % 63,97k; Durango-Arratia barrutian, barriz, partaidetzea apur bat handiagoa izan zan % 65,35era helduz. Aukeratutako eserlekuak holan egon ziran bananduta: EAJ-PNVrentzat 4; Bildurentzat 3; PSE-EErentzat (PSOE) bat, eta beste bat PPrentzat.

	Arantzazu	Areatza	Artea	Bedia	Dima	Igorre	Lemoa	Ubide	Zeanuri	Zeberio
EAJ-PNV	135	343	192	349	435	982	731	31	416	329
Bildu	122	263	156	189	481	1.172	829		415	344
Alkarlanien								69		
AHP			154							
ID						206				
PSE-EE		28	9	27	4	55	185	1	4	7
PP	1	44	7	27	7	29	80	1	6	6

▪ Partidu baktokxak herri baktokxean jasotako boto kopurua.

ARRATIA

Eskoletako jangeletako beharginak pozik lortu daben akordioagaz

Erredakzioa

Lau aste greban egin ostean, orain hiru ikasturte hasitako gatzakeari amaiera emon eutsien jangeletako beharginak maiatzaren 26an, patronalagaz akordioa lortu ostean. Guztira 35 greba egun izan dira. Akordioak zerbitzua hobetuteko 18 ordu eta formaziorako 6 ordu behargin guztiarentzat aurreikusten dauz. Soldateari jagokonez, funtzionarien % 95 2010-2011 ikasturtean, % 97,5 helduko dana

2013-14 ikasturtean. Akordio honek sei ikasturtetarako indaraldia izango dau.

Arratian balorazino ona

Bai lortutako akordioaren, bai Arratian egindako grebaren segimenduaren balorazino ona egiten dau Mertxe Ortuzar LAB sindikatukoak: "Zeanurin, Areatzan, Diman, Lemoan eta Igorren behargin guztiak edo ia guztiak egin dabe greba. Eta guraso eta zentroen aldetik be laguntza handia izan dogu".

ARRATIA

Arratiako harestiak ezagutzeko aukerea hilaren 4an

Erredakzioa

Arratia Bizirik eta Iintia Ikerketarako Elkarteak Arratiako haretx eremuak ezagutzeko ibilbidea antolatu dabe bagilaren 4rako. Urteera goizeko 09:00etan izango da Igorreko Industrialdean eta 14:00etan amaitutea aurreikusten dabe antolatzaileak. Ibilbide honen helburua Arratiako gaur egungo basogintzearen egoera jenteari heldu arazotea da, haretxaren eremua zein dan Arratian erakutsiz.

Ibilbidea

Ibiltariak Igorreko Industrialdeatik abiatuko dira, eta Motxogan, Arandui, San Migel txiki eta Mendiolatik pasau ostean, Arteako Industrialdean amaituko dabe martxea.

ZEBERIO

Ermitabarriko sanantonioak

Erredakzioa

Ermitabarrin (Zeberio) lau egunetako jai egitaraua prestatu dabe San Antonio jaiak ospatuteko. Barikuan txupinak emongo deutse hasierea jaiok eta ordutik eta San Antonio eguna dan astelehenera arte hogei ekitaldi inguru dagoz ondo pasetako.

BAGILAK 10, barikua

18:00etan Txupina. Estankoa tabernan argazki zaharren erakusketea.
18:30ean, Esku pelota partiduak.
21:00etan, Sardina-jana.
22:00etan, Rock jaialdia, HAMAIIA KILOMETRO, SUTEN eta PALAZO EN LA CARA taldeakaz.

BAGILAK 11, zapatua

11:00etan, Herriko jentearen arteko futbito txapelketea.
13:30ean, Triki poteoa.
14:30ean, Herri bazkaria frontoian.
17:00etan, Bola txapelketea.
18:00etan, Mus txapelketea.
19:30ean, Herri merienda.
20:00etan, Argazki lehiaketako sari banaketea.
20:30ean, LA ORKESTRA.
23:00etan, berbenea OBANEUKE taldeagaz.

BAGILAK 12, domekea

12:00etan, Pato lasterketea.
13:30ean, Ugel txapelketea.
13:30ean, Kalejirea txistulariakaz.
15:30ean, II. Lur Slalom-a.
20:00etan, Sari banaketea.
20:30ean, Errifea.

BAGILAK 13, astelehena

10:30ean, Mezea, trikitrilariak eta edadekoentzako barsukarria.

ZEANURI

Ipiñaburuko Santiagoren erreplikea egongo da Bilboko katedralean

Erredakzioa

Bilboko Santiago katedralean, santu honen irudi baten bila ibili dira eleiza honetako zutabe baten ipinteko. Ipiñaburuko (Zeanuri) aukeratu dabe eta erreplika bat egingo dabe katedralean ipinteko. Hori dala-eta, Asturias-etik etorritako teknikoak dabiz iru-

dia digitalizetan.

Santiagoren Ipiñaburuko irudia flandiar estilokoa da eta 1490 edo 1500 urtekoa izan daitekeala dino irudi hau aztertu dauan Jesus Muñizek, Bilboko Barrutiako Museoaren dokumentalsteak, DEIA egunkariak emondako informazioaren araber.



Iintia Ikerketarako Elkarteak eta Arratia Bizirik taldeak antolatutako ibilaldiaren deialdia.



Ermitabarriko jaietako kartela.

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a Igozte 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87 Fax: 609-79-40-54

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATEA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN ✓
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTSULTAN ✓
ONDASUN BEGIZTANEN ASIGURUTAN ✓
Sabino Arana, 5-3. floor 94 673 71 41 - Faxa 94 673 94 01 - 48140 GORRE

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Elexalde
Meri eta Josetxu
Pinturak (kolore guztiak)
Egur babesleak
Suteak eta behe-suak
Garbiketa produktua
Lehendakari Agirre, 11 bis - 48140 GORRE (Bizkaia)
Tel. 94 673 62 34 • Fax 94 673 72 38

indar
instalazio elektrikoak
Bidosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
T. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

ekin s.l.
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMITU SAREAK
BASERRI ETA BASO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 GORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Erreka Garrarioak
Mugikorra 629 465 335
Branitz auzoa, 12 LEMOA
Tfnua: 94 631 50 02 Faxa: 94 631 51 81

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

IGORRE

Herriko jaien sasoiaren hasierea sanantonioakaz

Igorreko San Antonio jaiak marketan dabe gurean uda sasoiaren hasierea. Izan be, honeek dira lehenengo herriko jaiak eta hemendik aurrera eta urriak arte ez da faltako txurroen usaina eta gaueko parrandea.

San Antonio eguna astelehena da aurten. Jaiak aurreko barikuan hasi eta aste osoa hartzean dabe, bagilaren 10etik 19ra.

Erredakzioa

BAGILAK 10, barikua

15:00etan, Bazkaria bakotzak etxetik ekarritakoagaz txosna gunean.

17:00etan, Gazteen arteko olinpiadak.

18:00etan, GAITERUAK eta LARRA-IN JANTZA txosna gunean hasita.

19:00etan, Txupinazoa txosna gunean.

20:00etan, Kuadrilen arteko olinpiadak.

Gurasoak umeen karroakaz lasterketea. Saria: painalak.

Karro karrera, kioskoko bidekuruzean hasita.

Amaieran, FANFARRIAGaz kalejirea.

22:30ean, Kontzertuak: ELBERETH, SUGAR BALLS eta XUTIK! taldeak.

BAGILAK 11, zapatua, gazteen eguna

12:00etan, Paella txapelketea Olabarriko zirkuituan.

14:30ean, Paella txapelketearen aurkezpena.

17:00etan, Bizkaiko Rugby 7 Kopa txapelketea San Txisme zelaian.

18:00etan, Gazteen arteko olinpiadak.

18:30ean, Kuadrilen arteko olinpiadak: Jolasak txosna gunean.

20:00etan, Luis Iruarizaga Abesbatza Kultur Etxean.

22:00etan, Kontzertuak: FEOS PERO MAJOS, SIROKA, EL ULTIMO QUE CIERRE.

Ostean, GARRAXI taldeagaz erromeria.

BAGILAK 12, domekea

10:30ean, BIZKAIKO ESKOLAK txirindulari lasterketea Orobin.

12:00etan, Mezea.

20:00etan, Arantzarte Jantza Taldea, goiko plazako frontoian.

21:00etan, Laburmetrajeen emonaldia eta sari banaketea Kultur Etxean.

22:30ean, Kontzertuak: KILAUETA eta IN THE ARMS OF PERDITION.

BAGILAK 13, astelehena, umeen eguna

Egun guztian Txu-txu trenan AMEK antolatuta.



Itxaso Iturriozek irabazi dau kartel lehiaketea.

11:00etan, Puzgariak, tailerrak eta jokoak umeentzat eskoletako patioan.

12:00etan, Kalejirea txosna gunetik.

12:00etan, Mezea.

19:00etan, Umeen PLAY-BACKA Kultur Etxeko eszenatokian.

19:00etan, Eskalada txapelketea.

BAGILAK 14, martitzena

18:00 eta **19:30** Arratiako Musika Eskolako ikasleen audizioa: "kama-

ra kontzertua" Kultur Etxean.

19:00etan, FUTBOL 7 txapelketako finalak.

20:00etan, Frontenis txapelketako finalak.

BAGILAK 15, eguaztana

19:00etan, Spinning kalean eszenatokian.

20:00etan, Areto jantzen erakustaldia Kultur Etxean.

BAGILAK 16, eguena

18:00etan, Triki-poteoa txosnetan hasita.

21:00etan, Herri Aferia eta karaokea Olabarriko aterpean.

Ostean, erromeria JAINAGA ETA NARBAIZA taldeagaz txosna gunean.

BAGILAK 17, barikua

17:00etan, Tortilla eta Makailao txapelketea Olabarriko zirkuituan.

19:00etan, Tortilla eta Makailao txapelketearen aurkezpena.

22:00etan, Kontzertuak: BIDEAN GALDUTA, LARREGI eta NIK KHAOS.

Bitartean, PLAY BACK txapelketea eta ostean ZIRKINIK BEZ taldeagaz erromeria.

BAGILAK 18, zapatua

13:00etan, I. Mendi Bizikleta Lasterketa Herrikoia Orobin.

16:30ean, Igorreko Jaietako XXI. Pelota txapelketea.

17:30ean, Umore Rallya txosna gunean hasita.

18:00etan, KIKI, KOKO eta MOKO pailazoak.

22:00etan, Kontzertuak: MATERIA GRIS, KORUMBA eta GOVERNORS.

Ostean, IZARGI taldeagaz erromeria.

BAGILAK 19, domekea, jubila- duen eguna

12:00etan, Mezea.

14:00etan, Jubiladuen bazkaria eta Karta txapelketak: mus, tute eta briska.

16:30ean, Gazteen arteko olinpiadak: Jolasak Kultur Etxe aurrean.

19:30ean, JOKALDI Kultur Etxeko plazan eta Bals lehiaketea.

Bitartean, Kuadrilen arteko olinpiaden sari banaketea eta jaietako erri-fen zozketea.

20:00etan, BEINKE!ren eskutik jaien amaierako txokolate jana.

expert ARRATIA

E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

Ametzola Landetxea

Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Airratziako sistemak - Aire zurgintza zentralizatua
Tutuek kontrolatutako berokuntza eta mantentze lanak

Igorreko Industriak, Pab. 07
Tel. Fax 94 673 62 76
819 736 616
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

JANDONIZ

nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

ASESORIA Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfn. 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

HERRIKO BENTA

HERRINO PLAZA
48142 ARTEA (BIZKAIA)
Tel. 94 631 72 56

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre

Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika

Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

GONTZAL MENDIBIL

"Jenteak neugaz batera kantetako da disko hau"

Bagilaren 7an egongo da kalean Gontzal Mendibil zeanuriztarraren azken diskoa *Neure txiki polita*. Bertan, Gorbeia inguruko kantu tradizionalak batu eta gaurkotu ditu, folk-etik iges eginda. Moldaketak, Dire Straits, Peter Gabriel edo jazz-aren swing-a ekarten deuskue burura, kantuon "esentzia edo sena" galdu barik. Ganera, Gontzal Mendibilek lehengusu Sabin Intxaurrearen omenez egindako "Malkoak euri balira" kantua be badago bertan.

Erredakzioa

Gorbeia aldeko kantuak dauka diskoak azpigitulu moduan. Nork jasotako kantuak dira? Ruper Lekuek?

Batzuk bai, beste batzuk Arbek, Mikel Manterolak, Labayruk... Ni neu be gazteagoa nintzanean kantu bila ibili nintzan baserrieta-

tik eta zinta batzuk daukadaz. Eta gogoia izan dot hori erreperau eta aurrera aterateko. Lehengo kantu horreek gaurkotu egin dodaz, esentzia edo sena galdu barik. Folk itxurea emon barik.

Ze itxura daukie, beraz, pop itxurea?

Bai, sinfonikoa, pop-a... moldaketak hortik joan dira, baina

lehengo melodiak mantenduta. Hainbat kantu euki dodaz auke-ratuta, 20 edo. Eta azkenean 13 grabau genduzan baina bat kanpoan itxi dogu, ez nintzalako gustura geratu hamahirugarren horregaz.

Diskoari kantu baten titulua emon deusagu, beharbada kanturik ezagunenaren izena. Otxandio, Arratia eta inguruko kantuak dira gehienbat disko honetan jasotakoak. Batzuk hemendik kanpo be ezagunak diranak.

Kantu tradizionalen ganera, badago zeuk sortutakorik?

Diskoa grabetako prepartan egon nintzanean, igazko abenduan, Lete hil jakun eta handik lasterrera neure lehengusu Sabin eta orduan kantu bat "Malkoak euri balira" egin neutsan barrubarrutik. Lete abenduan hil zan eta haren hiletetan Sabinekin esan eustan "hurrengo kantaldira joango nauk". Bera mendizalea zan, Gorbeiazalea, eta eskeini deusadan "Malkoak euri balira"

kantua Gorbeiazalea lotuta dago. **Zeuk sortutako bakarra da kantu hori?**

Ez. Bi dira neuk sortutakoak. Bat "Malkoak euri balira" eta bestea "Gorbeia haizea".

Besteak tradizionalak dira, baina "Atxia mutxia" barbarako, umeen jolasa da. Gure gurasoak eta atitite-amamak jolasten eben antzinako jolasa da. Jolasa kantu bihurtu dot musikea ipin iz eta Donostiako Easo koruko umeakaz grabau dot.

Laguntzailerik izan dozu?

Bai. Eta eskerrak emon beharra daukat. Arratiako Mankomunitateari, barbarako. Disko bat egitea gaur egun kostu handiko beharra da eta zoritxarrez, internet dagoanetik, ez dira diskoak saltzean. Laguntzak eskatu dodaz. Eusko Jaurlaritzari eskatu neutsan laguntza eta emon deusta diru apur bat, gauza handirik ez, baina zeozer da. Eta gero, Otxandio Soinubil alkarteak be laguntza emon dau. Otxandio kantu batzuk dagozanez, gero eskeiniko doguz kantaldi batzuk han. Mankomunitateak be erosi dauz hainbat disko herri bakotxari prezio merkeagoan eskeintzeko.

Esti eta Olatzek hartu dabe parte zure disko honetan?

Ez. Esti eta Olatz ez dodaz sartu. Nesken abotsa gitxi sartzean da disko honetan. Kantu bitan baino ez eta nigaz ibiltan dan Marife Nogales dago horreetan. Dana dala, gurako neuke baten batzuetan Esti eta Olatzek parte hartzea.

Diskoan nigaz dagozan musikariak dira normalean nigaz ibiltan diranak. Saxo eta klarineta be



Gontzal Mendibil.

"Eskerrak emon beharra daukat. Arratiako Mankomunitateari, barbarako"

Bagilaren 13an, San Antonio, astelehena

Txu-txu trena

11:00etatik-14:00etara
16:00etatik-19:00etara

Urteera orduro, Garbe eta 105 bitarteko parkinaren ondotik.

Ondo pasau jaietan!

Igorren erosi

Ambuzaldea





Diskoaren azala.

sartu dogu eta polito geratu da. **Gaur egun diskoak, jentea zuzenekoetara joan daiten izaten dira. Zuzenekoak egiten noz hasiko zarie?**

Zeanurin jaietan, abuztuaren 14an, 22:00etan aurkeztuko dogu diskoa. Beharbada, geroago Igorren be egongo gara. Gurako neuke pare bat lekutan kontzertuak emotea eta ahal izan ezkerro herri guztietan formato txikian, bertako kantuak dira eta. Otxandion be egingo dogu seguruena eta hainbat lekutan, Gasteizko jaietan, Bilbon be bai...

Lehenengo egunean Ean egon nintzan. Kantau nebazan kantu bi eta plaza guztia kantetan hasi zan. Ni aspaldi baten hasi nintzan kantetan eta orduan jentek

kantau egiten eban. Gaur egun, zoritxarrez, jentek ez dau kantetan, danok entzule bihurtu gara. Eta nik gurako neuke neugaz batera jentek kantetea eta asmoa hori da. Kantu honeek errezak dira kantetako eta bihotzean sartzeako be errezak.

Gure oroimen kolektiboan dagozalako, ezta?

Bai hori da. Baina nik gura izan dot beste modu baten tratetea.

Zer dauka desbardin disko honek besteen aldean?

Indarra dauka. Ni oso pozik geratu naz disko honegaz. Hau neure-neurea da, neure herrikoa, gogorapen asko dagoz hemen. Nire aita be kantaria zan, herrietako jaietan eta afalosteetan kantuan ibiltzen zan eta orduko jentek kantetan ebazan kantuak

Neure txiki polita

Gorbeialdeko kantuak oroitzuz

Elkar

1. Neure txiki polita
2. Orbelak airez aire
3. Malkoak euri balira
4. Frantzia kortekoa
5. Dimako Idiari
6. Zubiteko kridia
7. Atxia mutxia
8. Lapur famatua
9. Agur Euskal Herria
10. Ipiñaburu
11. Otxandioko errementariak
12. Gorbeiaiko haizea

Abotsa: Marife Nogales, Easo umeen korua.

Bajua: Rober Caballero.

Gitarra: Angel Unzu.

Bateria: Blas Fernandez.

Teklauak: Jose Luis Canal.

Saxoa eta klarineta: Joe Gonzalez.

Malkoak euri balira

Malkoak euri balira bustiko baleukiez kanpo ta barrenak. Itxi dozun hutsuneak osatuko baleusku geure esperantza, ezindura guztiak itoko balira. Pozaren bat bihotzean hasiko baliaku etsipen hontatik urtengo bagendu, bizi dogun oinazak alde egingo baleusku.

Malkoak euri balira gardenduko baleuskuez daroaguzan penak, arinduko baleukiez jasan behar ditugun baliaezintasunak, aldapa honetan behar dugun sena. Luzea da, gure mina esan nahi ta esan ezina, bizigaitzak bidean dakargun samina, Isuri diran negar tantak errotuko baleukiez aldaxka barriak ezo dan lurrean.

Malkoak euri balira argituko baleuskuez gainbeherako egunak, dorrean kanpai-hotsak jo dabe zotin kanta ta ahul dugu arima. Nekadurari orain dario ilgora. Begiak igo ditut goiztiria eskarian bizi gura eta ezin bizi naizen lurrean, maite zendun Gorbeia ixilean mintzo da pagope-larretan zeu zaitut gogotan.

hemen dagoz. Nik uste hori gustauko dala.


Beste gauza bat da zuzenean moduan dagoala grabauta. Orain

danok gagoz krisian eta egun bitan grabau behar izan dot diskoa. Lehen estudioa hiru astetarako hartzean genduan eta apurka

apurka bakotzak berea grabetan eban. Orain egin doguna da danok batera grabau, zuzenean moduan. Eta gustura geratu naz.

Euskarazko komunikabideak DENON BEHARRA

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz



MARATOI TXIKIA

Maratoi Txikia 5ean



Maratoi Txikiko kartela.

Erredakzinoa

Arratiako ikastolak eta Arratia Institutuak antolatutako XXXII. Maratoi Txikia bagilaren 5ean izango da. Urtero moduan, neurriko ibilbidea izango dabe korrikalariak adinaren arabera: nagusiak 11 km. korriduko dabez eta txikerrenak Igorreko eskoletako zirkuitua.

Antolatzailak Igorreko kiroldagian autobusa ipiniko dabe Zeanuritik urtetan dirantzant.

Ibilbide eta orduak

Arratiako talde txapelketea. Osaketea: 5 kide.

Nagusiak:

Ibilbidea: Zeanuri (plaza)-Igorre 11 km. Urteerea: 10:00etan.

Izen emotea: Igorreko kiroldegian 09:00etatik 09:30era eta Zeanurin 09:30etik 10:00etara.

94tik 98ra jaiotakoak

Ibilbidea: Artea-Igorre. Urteerea: 10:15ean.

Izen emotea: 09:30etik 10:00etara Arteako plazan.

99tik 2002ra jaiotakoak

Ibilbidea: Dima-Igorre. Urteerea: 10:00etan.

Izen emotea: 09:15etik 10:00etara Dimako plazan.

2003an jaiotakoak eta gazteagoak

Ibilbidea: Zirkuitua Igorreko eskolatan. Urteerea: 10:00etan.

Izen emotea: 09:15etik 10:00etara Igorreko kiroldegian.

FUTBOLA

Arratiako gizonetzkoak maila galdu dabe

Maialen Egileor

Arratiako gizonetzkoak hamabosgarren gelditu dira, jaitsiera postuetatik kanpora berez. Baina 3. mailatik Santurtzi bajatu denez, Arratiaren ligan beste bat bajatu behar zan eta eurak izan dira. Holan ba, datorren denporaldian lurraldeko lehen mailan jokatuko dabe eta ez lehenasunezko mailan. Gogoratu andrazkoak 7. amaitu ebela denporaldia 47 puntugaz.

Gonzalez Etxebarria barriro be Lemoara

Javier Gonzalez Etxebarria Arlo-nagusiko aulkira bueltatuko da datorren denporaldian. 2007 eta 2009 artean Lemoaren entrena-tzaile izan zan, Barakaldon ibili da gero eta Lemoara dator barriro



Aurten be campusa egongo da.

Aitor Larrazabalek itxitako lekua hartzera. Larrazabal Josu Urrutiagaz aurkeztuko da Athleticen hauteskundeetara eta.

Fubol Campusa bagilan ha-sita

Aurten be Futbol Campusa antolatu dabe Igorren eta eguaztanean, hilak 3, amaituten da epea izena emoteko. 5 urtetik gorako neska-mutilentzat izango da eta bagilaren 27tik garagarri-laren 15era bitartean eroango da aurrera. Hori bai, umeak aste baterako, birako edo hirurako apuntau daitezke. Futbolaz gainera, honek dira campusean egingo dabezan ekintzetako batzuk: multikirola, igeriketea, herri kirolak, txangoak, jokalar profesionalen bisitea... dana goizeko 09:30etik arrastiko 17:30era. Informazio gehiagorako deitu 659 256 255 telefonora edo idatzi arratiakokanpusa@gmail.com helbide elektronikora.

MARTXEA

Arteatik mendira bizikletan

Erredakzinoa

Bagilaren 4an, mendi bizikleta martxa "ez erregulaua" egingo dabe goizeko 09:00etan Arteako plazara hurreratzan diran bizikleteroak. Ibilbideak 35 km. daukaz eta 1.600m.ko desnibela "baina bidezidorra hartu daiteke eta holan 22 km. egin. Holan, hain adituak ez diranak be etorri leitezke" dino Gaizka Agirre antolakuntzakoak.

Txirriindulariak Arteako plazatik urten eta Garrikulatik Argiñaora joango dira, handik Mandoia igon eta Zeberiora bajatuteko. Hemendik Ermitabarrira eta Lau-

retara joango dira. Azkenengo honetan egongo da horniketa puntua eta gero Bikotx Ganera igon eta handik Upomakatzera eta Espartatik plazara barriro. "Asfaltoa ez da ia zapalduko, mendi pitea da gehiena" dino Agirrek.

BOLA JOKOA
Amaitu da txapelketea

Maite Arrizabalaga

Amaitu da Bizkaiko bola txapelketa komarkala. Pasa dan zapatuan, hilak 28, izan zan azkeneko tiradea San Migeleko bolalekuan. Egun horretan, San Antonio talde zornotzarra

gelditu zan lehenengo postuan eta Oba bigarreanean. Lemoak ez eban botaldi onik egin eta azkenengo postuan gelditu zan. Banakakoan, Belatiketa alkarteko Josune Sarrionandiak irabazi eban joko.

Sailkapen orokorrari begiratu-ta, irabazle, igazko moduan San Migel taldea gelditu da. Lemoa zortzigarren eta Oba bederatzigarren. Beraz, azkenean Obak lortu dau bere helburua, azkenengo postutik urtetea. Bakarkakoan Beñat Gorospe San Migeleko kideak eroan eban txapela.

Datorren zapatuan, bagilaren 4ean izango da Euskadiko finala Legazpin (Gipuzkoa). Oba taldeko Eneko Gorospe zornotzarra bertan izango da, baita Belatiketa alkarteko Jose Ramon eta Migel Goti anai zeberioztarrak. Orduan ikusiko dogu, zelango emoitzak lortzean dabezan jokalar honek.

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

- Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
- Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
- Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
- Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Egarren Hezkuntza, Baxilergoak, Hezkuntza zikloak

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

ellaURI HOTEL
Landa Turismoa Enpresa Zerbitzuak

Aitzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

AIZKOREA

Aitzol Atutxak txapel bi eskuratu daitez

Erredakzioa

Eusko Label Banakako Aizkora txapelketako 23 urte azpikoentzako finala eta urrezko mailaren finalak jokatu dauz Aitzol Atutxa dimoztarrak.

Lehenengo finala, 23 urte azpikoentzat, Ziordian izango da hilaren 5ean. Han Oihan Larretxea eta Atutxa II.a neurtuko dira eta aizkolari dimoztarrak igaz lortu eban txapela defendatuko dau.

Urrezko mailan be, heldu da dimoztarrak finalera. Final hau, Azpeitiako Izarraitz frontoian izango da hilaren 12an. Han, Aitzol Atutxa Juan Jose Lopez Azpilikuetaen kontra lehiatuko da txapela lortzeako. Txapel bi ditu eskura Atutxak.



Aitzol Atutxa beste txapelketa baten.

MENDIA

Pakistanerantza abiatu da Alex Txikon

Erredakzioa

Maiatzaren 26an abiatu ziran Alex Txikon, Ernesto Ezpeleta "Bihurri", Xabier Erro, David Maeztu eta Eukeni Arriortua Pakistanerantza. Zazpi mila km. inguru egingo dabez furgonetan, bidean aizkora desafioak erakutsiz.

Gernikako arbolaren ondoan abadeak espedizinoa bedeinkatu eban

Agurtzeko ekitaldia abadearen bedeinkapenagaz hasi zan, gero aureskua eta bertsoak egin eutseezan Txikon eta bere espedizinoko kideai. Mendizalea

agurtzera Seber Altube ikastolako umeak be hurreratu ziran pankarta eta guzti. Familia eta lagunaren besarkadak hartu ostean, abadearen txandea izan zan barriro. Honek, aizkolariak furgonetan sartu aurretik ibilgailua bedeinkatu eban.

Gasherbrum I-en aklimatau eta K2n bide barria zabaldu

Pakistanera heldutakoan beste helburu bat dauka Txikonek. Han, Gösch eta Rousseau-gaz batuko da Gasherbrum I-eko kanpalekuan. Asmoa da K-2ra igotea ekialdeko paretatik, bide barri bat zabaltzeko estilo alpinon.



Alex Txikon Gernikan.

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



ALKIZABAL

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



KÄRCHER

Banatzailerik
ofiziala



· Zuk behar duzuna
daukagu, galdetu
konpromiso gabe.
· Garraio zerbitzua.

DANERIK

Nekazal Punk, desafioa eta bertso bazkaria Diman

Erredakzioa

Luis Prietoren Lagunak, Gaztetxeak eta Bertso Eskolak hainbat ekitaldi antolatu ditue bagilaren 4rako, I. Nekazal Punk titulupean. Azokea, herri kirolak, herri bazkaria eta kontzertuak egongo dira egun eta gau osoa iraungo dauan jaietan.

Herri kirolak jagokienean, esku peloteagaz hasiko dira desafiokoak. Imanol Agirrek, Dabid Ibarra "Houston" eta Juan Mari Aurtentxe "Txirpu"ren kontra. Osteen, umeen motor lasterketea. Herri kirolan Barakaldo vs Luis Prietoren lagunak eta Zornotza vs Dimako Gaztetxea neurtuko dira.

Bertso bazkaria Jon Maia eta Unai Iturriaga bertsolariak animauko dabe. Bertso bazkarirako txartelak Herriko Taberna dagoz salgai.

10:00etatik **14:00**etara, Nekazal azokea eta artisautzak.

12:00etan, Herri kirolak.

13:00etan, Triki poteoa.

15:00etan, Bertso bazkaria.

20:00etan, Kontzertuak. KARRETERA AGROPEKUARIA, TAPAKUBOS, PUTAKASKA, JAIK, PRIMEROS AUXILIOS, BARBITURIKOS, NIK KHAOS.

02:00etan, Futbolin txapelketea.

06:00etan, Txokolatea ogi sikuagaz.



Bertso bazkariko kartela.

ANTZERKIA

Arratia Institutuko ikasleak *Dopaminomanoak* antzezten.

Iurretako taldeak irabazi dau aurtengo Zugan ni

Erredakzioa

Maiatzaren 20an izan zan Zugan ni laugarren edizinoko sari banaketea Zornotzan. Antzerki lehiaketa hau Iurretako taldeak

irabazi dau aurtan, *Briona* antzerki lanagaitik. Arratia Institutua izan zan igaz irabazlea. Arratia Institutukoak *Dopaminomanoak* lana antzeztu eben aitamen bat jasoz.



Dopaminomanoak antzezlana.

Argazkiak: Joserra Aihartza.

IBILALDIA

Dimako ermitak ezagutzeko ibilbidea

Erredakzioa

Hamasei baseleizetatik pasauko da bagilaren 4rako antolatutako Dimako Ermiten Ibilbidea. Ur-

teerea Dimako plazan izango da 07:00etan eta ibilbidea 31 km. ditu. Amaitutakoan, kopautxua egongo da plazan parte hartzaileak indarrak berreskuratu daiezan.

Hamasei ermita

Ibiltariak ikusi ahal izango dabezan baseleizak honeek dira: San Roke (Lazabal), San Migel Txiki, Magdalena (Lamindao), San Inazio, San Blas, San Fresku (Indusi), San Lontzo (Baltzola), Santa Apolonia (Bargondia), Santamañe (Egiraun), San Antolin (Oba), San Bizente (Artaun), Santa Ageda (Bikarregi), San Millan (Biterino), Santiago, San Balendin eta Piedadea.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkarte, Herriko plaza 24, 48142 Artea

ALOZO

Baztarretik zikloan *Arratia Inguruko Hiztegiaren aurkezpena*

Erredakzioa

Zeanuriko Alozok jarraitu egiten dau Baztarretik zikloagaz, eta, zikloaren hirugarren honetan, Arratiako bertako proiektu baten aurkezpenagaz dator: "Geure berbategie" proiektuko *Arratia Inguruko Hiztegiaren aurkezpenagaz*, hain zuzen. Ekitaldia, hilaren 9an, arrastiko 19:30ean Zeanuriko Kultur Etxean izango da.

Proiektu hori gidatu eta *Arratia Inguruko Hiztegiaren* egileak izango dira aurkezle: Angel Larrea eta Juan Rekalde.

Zeanuriztar guztiontzat konbidapena egiten dau Alozok, "eta ez bakarrik entzule moduan, ze herritar guztiok izan gaitenez, orain arte moduan, bizirik dagoan proiektu honen partaide geure ekarpenak eginda" dinoe antolatzaileak.

Bilboko Liburu Azokan

Bagilaren 3an, Bilboko Liburu Azokan, Angel Larrea egongo da *Arratia Inguruko Hiztegiaren* bigarren edizinoako liburuak sinatzen.



Larrea eta Rekalde.

LITERATUREA

Julen Gabiriak Mikel Zarate saria jaso dau

Erredakzioa

Bediako Julen Gabiriak *Nire aita ikusezina da* nobeleagaz irabazi dau Mikel Zarate haur literaturako saria. Saria 3.000 eurokoa da eta liburua udagoienera egongo da kalean. Kontakizun honetan, aita batek ume txikia paseatzera ateratzen dauanean, inork ez deusala kasurik egiten eta ikusezina dala pentsetan dau. Julen Gabiria Bediako Irakurleen Klubaren antolatzailea da.

Ez da Gabiriak jasoten dauan lehenengo saria. Izan be, bere lehenengo liburuak *Connemara gure bihotzetan*, Igartza Saria

jaso eban. Horren ostean etorri ziran *Han goitik itsasoa ikusten da* nobelea eta umeentzako *Metro bateko letrak* kontakizuna. Horrezaz gan, hainbat itzulpen egin ditu, biografiak eta antzerkirako lanak be bai.

Urruzuno saria Arteako Elena Bermudezek jaso dau

Eusko Jaurlaritzak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan ikasten daberen gazteen artean euskeara sustatzeko Urruzuno literatur lehiaketean, Arratia Institutuko ikasle dan Elena Bermudezek irabazi dau "Hemen nago" ipuinagaz.

PIROPO LEHIAKETEAK

Euskera Planeko Piropo Lehiaketako irabazlea ebatzi da

Erredakzioa

"Perretxikoak basoan eta zu nire altzoan" izan da piroporik onena Igorreko Udaleko Euskera Planak antolatu dauan Lehenengo Piropo Lehiaketan. Iñaki Iturrioz irabazleak urte amaierara arte bi personentzako zine sarrerak doban izango ditu Igorreko Kultur Etxean. Parte hartzea handia izan da eta epaimahaikideen arabera ez da bape erreza izan onena aukeratutea; horregaitik Igorreko

jaietako pegatinetan piropo hau eta beste batzuk be irakurri ahal izango dira. "Iturria bazina ni beti egarri", "Ogi egin barrie baino gozoagoa zara", "Zu ikusi arte ez dot jakin Gorbeieko parajeak baino gauza ederragorik dauenik" edo "Zu beti zara hain polite ala deskantsau be egiten dozu?" dira horetako batzuk.

Lehiaketean amaituta, "orain Igorreko jaiak geratzen dira piropoetarako trebezia erakusteko" dinoe antolatzaileak.

MUSIKEA

Fuenlabradako ikasleak kontzertua emon eben IKEn

Erredakzioa

Maiatzean Fuenlabradako Dolores Ibarruri Institutuko 36 ikasle eta 4 irakasle Arratian egon ziran Arratiako Musika Eskolak konbidatuta. Kontzertu bana eskeini eben arratiarrak eta madrildarrak Igorreko Kultur Etxean. "Ikasleentzat motibatzailea da eta gurasoak be sano pozik dagoz" azaldu deutso BEGURI Izaskun Arriaga Arratiako Musika Eskolako ikasketa buruak.

Igaz Arratiako 37 musika ikasle joan ziran Fuenlabradara, bertan kontzertu bat emotera.

Aurten eurak etorri dira eta kontzertuak bi izan dira. "Eta bietan, pieza batzuk eskola bietakoak batera jo dabez" dino Arriagak.

Tradizionala eta modernoa

Arratiako Musika Eskolak eskeinitako kontzertuan txalaparta eta albokea eta trikitixa taldeak jo eben hemengo musika tradizionala erakusteko. Musika klasikoa be jo eben, piano pieza batzuk berbarako eta musika modernoa josten daberen taldeak be parte hartu eben.

Fuenlabradako institutukoak, batez be, musika modernoa jo eben "Instituan sortu dan Project One taldea ekarri eben, baina musika klasikoa be jo eben".

Esperientzia honen helburua, musikearen bitartez gazteak alkar ezagutzea, musika ikasteko motibetea eta hartu-emon kulturalak sendotzea da. Hurrengo urtean be trukaketa honetaz jarraituteko asmoa daukie Arratiako Musika Eskolakoak.



Izaskun Arriaga Arratiako Musika Eskolako ikasketa burua.

DUNBA

Atletismoa Lemoako eskolan

Lemoako eskolea

Gu Lemoako JB Eguzkiza Meabe eskolan ikasturte honetan hasi dan atletismo taldekoak gara. Eskolako Eskolaz Kanpoko Ekintzen barruan hasi gara lehenengo aldiz atletismoa lantzean.

Taldean hamar partaide gara, bost neska eta bost mutil. Eguazten eta barikuetan daukaguz entrenamenduak, ordubete inguruko saioak dira eta Lemoako kiroldegian eta eskolako patioan instalazioetan egiten doguz.

Ikasturte hasieran Lemoako atle-

tismoa taldea sortu zan eta atleta fitxea egin genduan. Gure entrenatzailea Beñat Gutierrez da, Amorebietako atletismo taldekoa eta poz-pozik gagoz beragaz. Hasieran atletismoko fitxa bat bete genduan probetan parte hartu ahal izateko eta atletismo alkartean egoteak daukazan bentajak aprobetxetako.

Saioetan lehenengo korrika eta ariketak egiten doguz berotuteko; ostean, lasterketa eta atletismoko proba desbardinak egiten doguz astegoienera lehiaketak prestatzeko. Muskuluen luzaketa ariketak eta jolasak amaitzen doguz saioak.



Goian ezkerretik: Unai O., Enero, Aratz, Aitor A. eta Aitor S. Behean ezkerretik: Ainhoa, Matxalen, Udane, Ainara eta Irati.



Probak egiteko beste herri bazuetara joan gara (Muskiz, Triano, Zamudio, Berriz...) eta han salto, errelebo, korrikaldi eta beste proba askotan parte hartzean dogu.

Danok oso gustura etorten gara atletismoko saioetara, horregaitik Arratiako biztanleai eta batez be umeai gomendatzen deutsegu atletismoa lantzea, eta konbitea luzatzen deutsegu gure taldera etorteko, edo bestela eskola zein herrietan euren taldea sortzeako.

AGENDEA

**BAGILAK 2
BEDIA**

17:00etatik 20:00etara, bagilaren 10era arte, sanjuanetan txosnan lagunduteko izena emoteko epea.

LEMOA

16:30etik 19:30era, bagilaren 10era arte, udaleku irekietan izena emoteko epea zabalik ludotekan. Udalekuak bagilaren 27tik garagarriaren 8ra arte izango dira.

**BAGILAK 3
DIMA**

10:00etan, Guraso Elkarrekin antolatuta txalaparta tailerra eta eskupelota tailerra. 18:30ean, Aerobic danontzat frontoi txikian.

19:00etan, "Diman etxean gura doguz" presoen aldeko alkarretaratzea.

LEMOA

Ingurugiroaren ganeko tailer bereziak ludotekan.

**BAGILAK 4
ARTEA**

09:00etan, Artea Kirol Kultur Taldeak antolatuta, BTT martxea. 35 km. eta 1.600 m.ko desnibela.

DIMA

07:00etan, Ermiten ibilbidea.

10:00etatik aurrera, I. Nekazal Punk ikusi egitaraua 12. orrialdean.

IGORRE

09:00etan Arratiako harestiak ezagutzeko ibilbidea Industrialdean hasita. Arratia Bizirik eta lliintiak antolatuta.

20:00etan, Areatzako Bandak Munduko Musikak kontzertua eskeiniko dau Lasarte Aretuan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak umeen urterea. Burgoa (452 m.).

**BAGILAK 5
DIMA**

Kirolari atek zabalik. Maratoi txikia.

**Xutik! Lapurdiko taldea Igorreko jaietan bagilaren 10ean**

Bederatzi lagunek osatzen dabe Lapurdiko Xutik! taldea, eta gehienak Zpeiz Mukaki elektro-txaranga ibilitakoak dira. Baga-biga diskoetxeak kaleratu dauan lehennengo lanean, ska eta reggae estiloetan bustitako 14 doinu bildu, eta "pasibotasunaren aurkako" berbakaz jantzi dabez.

Zpeiz Mukaki elektro-txaranga Xutik!-en jatorria da. Talde hori 2006 urtean eratu zan eta lau urtez kalean bersinoak jotzen ibili ostean, Xutik! egitasmoa abiatu dabe.

IGORRE

09:00etan, Arratiako XXXII. Maratoi Txikia.

17:00etan umeentzako zinea *Hop*.

19:30ean, zinea *El mundo segun Barney* Kultur Etxean.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldea Alkurruntz (934 m.) Legate (890 m.).

ZEANURI

12:00etan, Kirolari atek zabalik: triziklo lasterketea (30 m.); ume eta gurasoen arteko lasterketea (30 m.), umeen sokatirea, gazteentzat kirol jokoak eta bikote jokoak (aitita-amama bat, gazte bategaz).

**BAGILAK 9
ZEANURI**

19:30ean, "Geure Berbageie" proiektuko *Arratia Inguruko Hiztegiaren aurkezpena* Zeanuriko Kultur Etxean.

**BAGILAK 10
IGORRE**

19:00etan, San Antonio jaietako txupina txosna gunean: jaien hasiera. (Ikusi egitaraua 7. orrialdean).

ZEBERIO

San Antonio jaiak Ermitabarrin. (Ikusi egitaraua 6. orrialdean).

**BAGILAK 11
AREATZA**

23:00etan Jabier Mañon umoristea Bixer Tabernan.

**BAGILAK 12
UBIDE**

Amexier Mendi Taldea Gorbeia (1.481 m.) gauzez.

**BAGILAK 13
LEMOA**

Bagilaren 24ra arte, informatika eta mekanografia ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Ikastaroa datorren ikastartuan. Izena emon liburutegiko informatika gelan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**SALTZEAN DOT**

Egurrezko sehaska barri-barria saltzean dot, "Cune" markakoa, 150 eurotan, koltxoia doban. Interesatuak 665 722 575 telefonora deitu.

SALTZEAN DOT

Autoa saltzean dot. Ford Focus, 1.8 Trend, 115 cv. Diesela. 39.000km. Arrisku orotariko aseguruagaz (2012ko zezeilera arte). 9.000€. Telefonoa 635 007 632.

SALTZEAN DOT

Mendiko bizikletea (BTT) saltzean da. 10-13 urterako. Gixi ibilita. Prezioa: 60€. Interesdunak deitu 634 410 259 (Luis) telefonora.

ETXEA SALGAI

Areatzako Askatasuna kalean 125 m²ko pisu ederra salgai. Telefonoa: 646 448 869.

**LAN ESKEINTZA
ESTETIZISTEA BEHAR DA**

Igorreko zentro estetiko baterako estetizistea behar da. Interesdunak 635

704 739 telefonora deitu.

EROSI**EROSTEN DOT**

Umeak paseatzeko antxinako karroen bila gabiz. Atera hauts artean gordeta eta ahaztuta daukazuen karro hori, prezioa ipini eta deitu 646 597 501 telefonora.

DANERIK**APARTAMENTUA ALOKAIKIRUAN**

Suancesen apartamentua alokairuan. Asteburu, astebarru zein edozelan alokatzeko. 4 personentzako. Apartamentu barria. Telefonoa 677 497 985.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1

Baga-bigak emondako Borja Estankonaren CD bana.

Jose Ramon Zubizarreta (Zeberio)
Damian Agirremota (Areatza)



2

Zeberioko Ametzola Landetxeak emondako asteburu pasa.
www.ametzola.net


Kepa Intxausti (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Gorputz barruko organo bat. 2.- Irabazleari emoten jako. Bokala. 3.- Antza. Arsenikoa. 4.- Mugale anitza. Umezaina. 5.- Toki, leku. 6.- Maitasunaren jainko grekoa. Letra izena. 7.- Birritan, bular. Ogia egiteko behar da. 8.- Bokala. Txispa. 9.- Sorkia.

GOITIK BEHERA

1.- Letra bat. Gailurra, tontorra. 2.- Burlati. Konsonantea. 3.- Birritan, hizkera hotsaren onomatopeia. (Atz.) Euskera zaharrea, txakur. Iridioa. 4.- Apaltasuna. 5.- Berrogeta hamaika erromatar. Amerizioa. Musika mota bat. 6.- Bokala. Ategene. 7.- Zeresan. Bokala.



Topau zazpi txakur arraza.

A	D	O	K	E	R	A	Z	I	O
S	I	A	O	F	O	B	I	D	Z
E	R	A	L	A	N	O	J	O	A
G	E	R	A	M	A	K	A	M	O
O	Z	L	E	R	A	H	E	A	L
T	A	J	I	E	S	T	Z	U	A
O	M	A	S	T	I	N	A	G	M
Z	O	A	R	T	Z	E	K	E	A
O	B	O	E	E	S	D	O	D	E
X	I	L	O	S	X	L	A	D	A
L	E	B	A	G	A	O	O	N	S
A	R	R	E	P	U	G	B	A	R
Z	B	O	R	A	O	H	I	R	A
O	Z	T	I	K	A	J	O	G	I
M	I	T	A	A	J	L	X	A	T

AKI MI KO

Igor Menika



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte
• Boboli • Ray • Aranda
• Akur • Gutsuiter • Arandiga
• Gaudole • Leiz • Maspana
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmusak 41, A, BTE, B
Lehendakari Agirre 31
Tlfnoa: 94 673 71 32
94640 IGORRE (Bukatu)
garantxe@euskalnet.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karmela eskolaraz zein erdoraraz
Gabe, 10 - 48140 Igone (Bikola)
telefonoa 94 631 54 31, Faxo 94 673 70 83
e-posta: urakua@euskalnet.net

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig.Mendieta,nº 3,48500 LEMCIA, Euskadi
Tel.020-482 839- faxo 099 296 727

ALKOHOLIKO ANONIMOAK
ARRATIAKO TALDEA
Arazoak alkoholagaz?
Arazoak badaukazuz,
lagundu ahal zaitugu

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

axular
Kultur Elkartea
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

Bar Restaurante Montero
Eguneko menua
euskal sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra
Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653

ZEKUTZE
JATETXEA
Salino Arana, 24
48140 IGORRE - Bikola
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

Igorre
BIZTAR EGUNAK:
epaztasun 20etatik 22etara
Udaltzako arkapetan
EPA-ko lokalak
KONTAKTATZENO
TELEFONOA:
690 139 044

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

ELENA BERMUDEZ

**"Gehien gustau jatan saria
biajea da, duda barik"**

Urtero ospatzen da Urruzuno literatur lehiaketea eta Euskal Herriko institutu askotako ikasleak legez, aurten be hartu dabe parte arratiarrak. Aspaldian ez eban bailarako inork irabazi sari hau, baina igaztik bolada ona datorrela dirudi. Nastia Atutxak irabazi eban pasa dan urtean eta aurten Elena Bermudezek. Azken honegaz egon da BEGITU, lehiaketaren eta idatzi dauan ipuinaren ganean berba egiteko.

Irati Urien**Zer dala eta hartu dozu parte?**

Hirugarren mailatik euskerako irakasleak proposatzen deusku parte hartzeako. Notarako dala esaten deuskue eta irabazi daikegun saria zein dan jakitean, animau egiten gara. Kuriosoa da gure gelatik neska gehienok animau garala; mutilak, barriz, bi edo hiru. Mitikoa, ezta?

Erreza da ipuin bat idaztea?

Ez, bape be ez. Nire kasuan arrasti baten hasi nintzan. Istorio bat hasten neban, gero bertatik idea desbardinak etorten jatazan...

"Hemen nago" da ipuinaren izenburua. Zertaz doa?

Boligrafo bat da protagonistea.

Bic markakoa da eta triste dago inork ez daualako erosten. Eider izeneko neska batek hartzean dau eta hortik aurrera, dendako erakusleho aspergarriari agur esan eta eskuz esku ibiliko da, izango dituan jaube baktxaren pasadizoen lekuko izango dalarik.

Protagonista bitxia. Zergaitik ez persona bat, ipuin gehie-

"Gitxien espero

dauanak

irabazi daike, eta

sariak merezidu dau"

netan bezala?

Ez dakit, desbardina dalako, ezohikoa.

Zelangoa izan zan irabazle zinala enterau zineneko momentua?

Sano pozgarria. Juantxu irakasleak esan eustan klasean, orain dala aste bi inguru. Gogoratzen naz gorri-gorri ipini nintzala. Danak hasi jatazan zorionduten... Ez neban espero. Ez dakit, ez neban uste ipuina hain ona zanik, idazten ona nintzanik; autoestimua izango da agian.

Sari baten faltan hiru. Zein gustukoena?

Hiru dagoz eta zein baino zein hobeak. Batetik, bajea dago. Europan zehar da, 9-10 egun. Nire kasuan, Frantziara eta Britainia



Handira. Irabazle guztiak joango gara, irakasle bigaz. Bestetik, 300 euroko saria dago. Bukatzeko, irabazle guztion ipuinak

argitaratuko dira. Horreetaz gain, diploma moduko bat be jasoko dot. Gehien gustau jatan saria bajea da, duda barik.

Eskerrik asko!

3.971

boto

Arratia eta Zeberion lehen indarra udal hauteskundeetan

bildu

GALANTA

Berrik janzteko
Zugandik sano hurbil

Jaietan zugaz eta zure ondoan beti!

Lehendakari Agirre 23, Igorre - Telefonoa: 94 631 90 08

E P A

Galdakao

www.epagaldakao.com

Matrikuletako epea, urtalia osoa.

Tlfn. 94 456 60 98

Helduen heziketa

E.P.A.

IGORRE: Elexalde 22. Eleizako lokaletan